

EZTENA 2015 / EGITARAUA

EKAINA/JUNIO 18

PIEZAK / 18.00

Sormen prozesuan dauden lanak/ Trabajos en proceso de creación

18.00etatik 21.00etara. Mikelazulo

*Herrian pintxo-potea denez, edariarekin pintxo goxo bat izango da bertaratzen direnentzat!

TRIPAK KOLEKTIBOA

Idea, zuzendaritza, antzezpena: Tripak kolektiboa (Mayi Martiarena, Maite Mugerza eta Marina Ortiz de Zarate). Laguntzailea: Parasite Kolektiboa

Bihar argazkiaren eguna da. Gaurkoa, azkenengo gaua. Desmondek, Marina eta Patriken aitak, bere desio ta ezintasunak eragiten dizkioten kateez askatzeko, bere seme alaben jakituriaz bustitzeko beharra dauka. Haren mamu eta trapuzaharrak ezegonkorrean jarri beharko ditu erredentzioa behingoz aurkitzeko. Publikoaren aurrean zer garen, edo gure bakardadean, bizitzak zertara eramaten gaituen jakin nahian, besteen begiradaren edota maitasunaren menpekotasuna adierazten du eta bere burua posearen bitartez defendatu eta era berean morroitu egiten du. Seme alabek ez dute sentitzen kanpoko begirada honek sortzen dituen mugak eta beraz mundua haratago eraman dezakete haien jolasen bitartez errebelazio bat balitz.



ERORI

Eneko Alcaraz + Maria Alonso



Antzerki fisikoa eta dantza garaikide artean kokatzen dugun 15-20 minutuko pieza. Bi dinamika ezberdinen inguruko ikerketa da Erori: energia galerak eta laguntza harremana. Batzuetan gorputzak ez du erantzuten. Ez dabil, ez doa. Ez du lanik egin nahi. Lana berdin indarra bider desplazamendua. $W = F \cdot d$

DIOS

Zuzendaritza: Trino teatro

Testua: Mikel Fernandino

Antzezleak/Actores: Florentino Badiola y Aitor Fernandino

Armando Campos acaba de morir y está en el cielo. Tiene una cita con Dios. Ha habido un malentendido, puesto que llevaba toda su vida esforzándose para poder entrar en el infierno. Pero claro, nuestro protagonista no conoce los caprichos del capitalismo, que, por cierto, también llegan al más allá.

BELTXARGA BELTZA

Taldea: Goitibera antzerkia

Bufoiaren ikuspuntutik landutako antzezlan labur honek, gure buruaren gainean ezartzen diren eskakizun, betebeharrak eta zorrotasunen inguruko hausnarketa bat planteatzen du. "Ispiluaren aurrean jarri eta ikusten duguna ezagutzeko gai ez garenean, zerbait oker doala atzeman dezakegu. Noraino heldu gaitezke familia, lagun, lanbide eta orokorrean, gizartearen eskakizunak betetzeko ahaleginean? Beltxarga beltzaren unibertso onirikoak, errealitate gordina jartzen digu aurrez aurre."

ESKUTITZAK

Antzezleak: Aitor Fernandino, Itziar Elias, Olatz Beobide, Josean Bengoetxea, Aiora Sedano, Iosu Florentino.

Zuzendaria: Izazkun Arandia

Arropak: Xanti Alkorta

Sortzaileak: Izazkun Arandia eta Itziar Elias

Azkoitia, 1936ko uztaila. Denbora gutxira azkoitiarren bizitza guztiz aldatuko duen Gerra Zibila lehertuko da. Testuinguru honetan kokatzen da Joxe eta Emilia gazteen arteko amodiozko istorioa. Emilia herriko alpargata fabrikaren jabearen alaba da, familia frankista aberatsekoa. Joxe berriz, Azpeitiako postari errepublikar sutsuaren semea da eta alpargata fabrikari lan egiten du. Lehenengo topo egitetik itxuragabe maitemintzen dira, baina bi familiez gain, maitasun hau oztopatuko duten hainbat eragozpeni aurre egin beharko diote.

ESTUALDIA

Taldea: Les Petites Ridicules

Goi-mailako jostuna den Mr Clean-ek bere arerio profesionala den Alvarez jauna topatzen du tokirik ezustekoenean. Elkar zorrotzago eta leihakorrago egiten dutenetakoak izanik, beren alderdirik gizatiarrenak ikusiko ditugu glamourrez beteriko komedia fin eta lurrintsu honetan."



EKAINA/JUNIO 19

ZUEK / 18.00 + 20.00 (*)

Panier zubiaren alboan/ Al lado del puente de Panier

OHARRA/NOTA: Sarrerak aurretik erreserbatu behar dira/ Las entradas con reserva.

Interpretazioa eta sorkuntza/Creación, interpretación: Corine Cella, Ander Fernandez
Testuak/Textos: Ander Fernandez, Oier Guillan
Bideogintza/Videos: Zazpi t'erdi: Pello Gutierrez, David Aguilar
Eszenografia/Escenografía: Laurent Gauthier, Idoia Beratarbide, Alvaro Ledesma
Jantziak/Vestuario: Marodi (Idoia Beratarbide_Maria de Bernardo)

Gure arbasoek merezi duten omenaldia, gure gurasoei gorazarre... familia memorian egindako zoom- a. Feriante karpa baten sarreran zera dion afixa ikusi duzu: "Cinema of memories". Zinema itinerante batetan sartuko zara orduan.

Kontzertu, zinema eta objektu teatroaren artean kokatzen den ikuskaria da Zuek. Bere unibertsoan jasoko zaituen pertsonaia musikari eta soinu sortzaile bat da, proiektatzen diren super 8 filmeetako heroi anonimoentzat konpositore.

Elementuen alkimiaz eratutako munduan barrena gonbidatzen zaitu gizon horrek, "pasen y vean" esango dizu, etor eta deskubritu, begiratu, entzun eta bizi, "welcome to the cinema of memories!". Eta pertsonaia hori gu baino lehen bertan murgildu zaigula deskubrituko duzu pixkanaka.

Un emotivo homenaje a nuestros antepasados, nuestros padres ... Un zoom en nuestra memoria familiar. A la entrada de una carpa de feria, encontramos un cartel que dice: "Cinema of memories". Entonces entramos en un pequeño cine itinerante.

Zuek es un espectáculo a medio camino entre el concierto, el cine y el teatro de objetos. El músico que vemos en el escenario es un artista sonoro, compositor para los héroes anónimos de las películas que se proyectan. Las imágenes súper 8 desfilan ante nosotros y nuestra imaginación se evade a los años 70, un pasado que podría ser el nuestro.

El hombre nos invita a entrar en este mundo creado por la alquimia de los elementos. Nos ofrece un momento íntimo, nos dice: "Welcome to the cinema of memories " "Pasen y vean, vean y miren, escuchen y disfruten!" Poco a poco descubriremos que ese personaje se sumergió antes que nosotros en ese mundo pasado.



SHORTAK / 19.00 (*)

Herriko Enparantzatik hasita leku ezberdinetan /Comenzando en la Herriko enparantza
OHARRA/NOTA: Sarrerak aurretik erreserbatu behar dira/ Las entradas con reserva.

Antzezleak/Actores: Amalia Martin, Nerea Foruria, Rakel Anitua, Alvaro Bullé, Idoia Aldekoa, Nagore Plaza, Gilen Santiso, Areli Egia, Iker Galdos, Eneko Arrate eta Luis Egurrola.

Zuzendaria/Dirección: Ander Lipus

Markinako Abarka antzerki taldeak hiru pieza laburrez osatutako lan berria eskainiko du Eztena jaialdian. Pieza bakoitza herriko txoko ezberdin batean egingo da, ikusle talde txiki batentzat. "Hilean behin", "Spagarroza" eta "Konposta operazioa" pieza laburretan (15 min bakoitzak) ikusleak begirale pribilegiatu bihurtzeko aukera izango du kartzelako bis a bis batean, hileta batean edo kaleko zabor kontenedore baten inguruko gertaera ezohiko batean.

La compañía Abarka de Markina presentará en Eztena su nueva obra formada por tres piezas cortas. Cada pieza se representará en diferentes localizaciones y para un grupo reducido de espectadores. En las piezas "Hilean behin", "Spagarroza" y "Konposta operazioa" (de 15 min cada una) el público se convierte en observador privilegiado de un vis a vis en una cárcel, en un funeral o en un suceso fuera de lo común en un contenedor de basura.

EKAINA/JUNIO 21

ANTZERKI LABEA : MOSTRAK / 18.00

Niessen kulturguneko entsegu gelan/ Sala de ensayos de Niessen

Antzerki Labea udal antzerki tailerretako "Hastapen" (bi talde) eta "Sakontze" kurtsoetako ikasleen hainbat pieza ikusteko aukera izango da ikasturte amaierako MOSTRA honetan. Bi taldeek Arkaitz Gartzandia irakaslearekin urtean zehar landutakoaren erakustaldia egingo dute, klasean landutako ariketak eta ikasleek kolektiboki sortutako piezak lehen aldiz ikusleen aurrean jarri.

MUESTRA que ofrece piezas de los alumnos de los niveles "Iniciación" (dos grupos) y "Profundización" del taller municipal de teatro Antzerki Labea. Los dos grupos dirigidos por el profesor Arkaitz Gartzandia nos enseñarán lo trabajado durante el curso, algunos ejercicios realizados en clase y otras piezas creadas colectivamente por l@s alumno@s.

SU IZAN NAHI / 20.00

Niessen Kulturguneko areto nagusian / Auditorio de Niessen

OHARRA/NOTA: Sarrerak 5 euro. Eztenakideek doan / Entrada 5 euros. Eztenakides free.

Oholtzan: Idoia Beratarbide, Javi Barandiaran, Asier Sarasola, Ander Fernandez, Oier Guillan.

Laguntzaileak: Zumaiaiko kultur arloa (Aita Mari Antzokia), Durangoko San Agustin antzokia. ZUBI deialdiaren laguntzaz sortutako proiektua.

Eskerrik asko: Dejabu, Marodi, Alvaro Ledesma, Zazpi t' erdi, Errenteriako Udala.

Hotzak dauden bost lagun beroaren bila. Haien bizitzetan erabakigarriak izan diren hildakoak, senideak eta maskotak oroitzuz bilatuko dute falta zaien beroa.

Umorea, poesia bisuala, performancea eta diziplina artistiko ezberdinen arteko elkarrizketan oinarritzen da "SU IZAN NAHI:hildakoak, senideak eta maskotak" antzezlanak: pertsonen bizitzak lotzen dituzten hariak jarraituz eginiko bidaia emozional bat.

Cinco amigos que tienen frío, en busca de calor. Recordando a los muertos, familiares y mascotas que han sido decisivos en sus vidas, intentarán encontrar el calor que les falta.

La obra de teatro "SU IZAN NAHI": los muertos, familiares y mascotas" está creada con humor, poesía visual, performance y diferentes disciplinas artísticas. Un viaje emocional que se hace siguiendo los hilos que unen las vidas de las personas.

EKAINA/ JUNIO 22

MI GRAN OBRA / 18.00 + 20.00 + 22.00 (*)

Mikelazulo.

OHARRA/NOTA: Sarrerak aurretik erreserbatu behar dira/ Las entradas con reserva.

Antzezpena/Interpretación: David Espinosa / Cía. Hekinah Degul

Zuzendari laguntzailea /Ayudante de dirección: África Navarro

Musika eta soinua/ Música y sonido: Santos Martínez / David Espinosa

Espazio eszenikoa/ Espacio escénico: David Espinosa / Air maquetas y proyectos de arquitectura



Aurrekontu mugarik izango ez banu egingo nukeen antzezlan da “Nire obra handia”. Planetako antzokirik haundiena, 300 antzezlerekin oholtzan, orkestra militar bat, rock banda bat, animaliak, autoak eta helikoptero bat. “Nire obra handia” utopia bat da.

Artistok beti bizi gara prekarietate eta medio urritasunean eta horixe izan da beti gure lanen pizgarri eta ezaugarria: azpiegitura eskasiari aurre egiteko mekanismoak pentsatzea, beharra bertute bilakatzea, ezintasuna sormenaren motor bihurtzea. Horregatik, egoera sozio-ekonomiko konplexu honetan, luxu hau gutxiren esku dagoenean, gure egitasmorik anbiziotsuena aurkezteko garai egokia dela uste dugu. Formatu haundiko gure lehen lana, lan faraoniko bat... baina hori bai, matiz txiki batekin: 1:87 eskalan.

Emaitza jolas formal bat da. Jolas honetan gure gizartearen erretratu diren narratiba ez linealak sortzen dira ikuslearen begi aurrean, norberak bere modura interpretatuko dituen metaforez kargatutako irudiekin, eszenekin eta giroekin.

Mi Gran Obra es lo que yo haría si tuviera un presupuesto ilimitado, el teatro más grande del planeta, 300 actores en escena, una orquesta militar, una banda de rock, animales, coches y un helicóptero. “Mi Gran Obra” es una utopía.

La realidad en la que siempre nos hemos movido como artistas se caracteriza por la precariedad y la escasez de medios, y precisamente ahí ha estado siempre el acento de nuestros trabajos: ingeniar mecanismos para resolver la falta de recursos, convertir la necesidad en virtud para potenciar el fracaso como interés y motor de la creación. Por eso ahora que nos encontramos en una complicada situación socio-económica, nos parece el momento idóneo para abordar este nuestro primer gran proyecto. Pero, obviamente, con un ligero matiz: a escala de 1:87.

El resultado es un juego formal del que surgen diferentes narrativas no lineales que son un retrato de la sociedad en que vivimos, y que encierran metáforas que cada espectador interpreta a su manera.

OHARRA:

(*) Daukaten emanaldietarako sarrerak erreserbatu behar dira aurretik, talde txikientzako lanak direlako. eztenasarrerak@gmail.com helbidera idatzi ekainaren 1etik aurrera, zure izen abizenak eta telefonoa jarritz. Zein emanaldi eta ze ordutan ikusi nahi duzun ere jarri. Mila esker!

NOTA:

(*) Para las obras que tiene un asterisco hay que reservar entrada con anterioridad, porque son obras para público reducido. Manda un email a partir del 1 de Junio a eztenasarrerak@gmail.com. Indica tu nombre, apellidos y tu número de teléfono. También a que representación quieres acudir y en qué horario. ¡Gracias!